



Getxo
UDALA • AYUNTAMIENTO



Fueros, 1
48992 GETXO (Bizkaia)
Tf: 94 466 00 00
Faxa: 94 466 00 85
<http://www.getxo.eus>



Finmado: LARRAITZ ABERASTURI IBARRA (AOT LETRATUA / TAG LETRADA) Data: 2023/11/21 Fecha: 21/11/2023
MIREN KULTSE EIGUREN ALBERDI Data: 2023/11/22 Fecha: 22/11/2023
AMALIA AGUIRRE MUÑOZA (ALKAITEA / ALCALDESA) Data: 2023/11/23 Fecha: 23/11/2023

Cod. Validación: GET/DEK/2023/5636 QN9NLsKDPI

Dekretua / Decreto:	5636 / 2023	Erref. / Ref.:	LA/mj
Gaia / Asunto:	Aprobación del Plan Estratégico de Subvenciones 2023-2027 del Ayuntamiento de Getxo		
Arloa / Área:	IDAZKARITZA / SECRETARIA		
Interesduna / Interesado:			

Kontuan izanik ondorengo

Habida cuenta de los siguientes

AURREKARIAK

ANTECEDENTES DE HECHO

1.- 2020ko irailaren 29eko 110. Osoko Bilkuraren Erabakiaren bidez, Getxoko Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2020-2023 aldirako diru-laguntzen plan estrategikoa onartu zen.

1.- Mediante Acuerdo Plenario 110 de 29 de septiembre de 2020, se aprueba el Plan estratégico de subvenciones del Ayuntamiento de Getxo y sus Organismos Autonomos, período 2020-2023.

Plan horrek hainbat aldaketa izan ditu indarrean egon den bitartean.

Dicho plan ha sido objeto de diversas modificaciones durante su vigencia.

2.- Indarraldia amaituta, beste plan bat onartu behar da.

2.- Expirada su vigencia, procede la aprobación de un nuevo Plan.

3.- Udal arloek Dirulaguntzen Plan Estrategiko berrian sartu beharreko dirulaguntza lerroak Idazkaritza Nagusira bidali ondoren, 2023-2027 aldirako Getxoko Udalaren dirulaguntzen Plan Estrategikoaren dokumentua egin da, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta Getxoko Udalaren eta haren erakunde autonomoen dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantzan xedatutakoaren arabera.

3.- Tras la remisión a Secretaría General por parte de las áreas municipales de las líneas de subvenciones a incluir en el nuevo Plan Estrategico de Subvenciones, se elabora el documento del Plan estratégico de subvenciones del Ayuntamiento de Getxo período 2023-2027, en cumplimiento de lo dispuesto en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y la Ordenanza reguladora de subvenciones del Ayuntamiento de Getxo y sus organismos autónomos.

4.- Azaroaren 20an, kontu-hartzaile nagusiak txostena eman du ondorio ekonomiko-finanzarioei eta aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren printzipioak betetzeari buruz.

4.- Con fecha el 20 de noviembre la Interventora General emite informe sobre repercusión económica-financiera y cumplimiento de los principios de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera.

5.- Azaroaren 21ean, Idazkaritza Nagusiko letraduak txostena egin du, 2023-2027 aldirako Getxoko Udalaren dirulaguntzen Plan Estrategikoaren onespeneraren aldekoa.

5.- Con fecha el 21 de noviembre la TAG-letrada de la Secretaría General emite informe favorable sobre la aprobación del Plan estratégico de subvenciones del Ayuntamiento de Getxo período 2023-2027.

Eta ondorengo honetan oinarriturik

Y sobre la base de los siguientes

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

FUNDAMENTOS DE DERECHO

1.- Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra.

2.- 38/2003 Legearen Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua.

3.- Getxoko Udalak Getxoko Udaleko eta haren erakunde autonomoetako dirulaguntzen Ordenantza orokorra.

4.- Apirilaren 2ko 1985/7 legeak, Tokiko araubidearen oinarriak arautzen dituen Legea.

Hortaz, legeak ematen dizkidan eskuduntzak erabiliz

XEDATU DUT

1.- Ebazpen honekin batera Eranskin moduan doan Getxoko Udalaren 2023-2027 denboraldiko diru-laguntzen plan estrategikoa onestea.

2.- Erabaki hau eta Getxoko udalaren diru-laguntzen plan estrategikoa 2023-2027 denboraldirako, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Diru-laguntzen datu-base nazionalean eta udalaren webgunean argitaratzeko agintzea.

3.- Erabaki hau udal arloei jakinaraztea.

Agiri honek eskuz idatzitako sinadurarik ez izenperik ez duen arren, legeko balioa du. Getxoko Udalaren web-orrialdetik (<http://www.getxo.eus/> administrazio elektronikoko bulegoa) agiri honen benetako kopia eskuratu ahal duzue formatu digitalean, ezkerrean ageri den egiaztapen-kode segurua erabiliz

1.- Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

2.- Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley 38/2003.

3.- Ordenanza reguladora de subvenciones del Ayuntamiento de Getxo y sus organismos autónomos.

4.- Artículo 21.1 s de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local

Y en virtud de las atribuciones que me confiere la legalidad vigente

DISPONGO

1.- Aprobar el Plan estratégico de subvenciones del Ayuntamiento de Getxo para el periodo 2023-2027, que se acompaña a la presente resolución como Anexo.

2.- Ordenar la publicación de la presente resolución, así como del Plan estratégico de subvenciones del Ayuntamiento de Getxo para el periodo 2023-2027, en el Boletín Oficial de Bizkaia, la Base de datos nacional de subvenciones y en la página web municipal.

3.- Comunicar el presente acuerdo a las áreas municipales.

A pesar de no constar firmas manuscritas, este documento tiene validez legal. En la Página Web Municipal (<http://www.getxo.eus/> Oficina de Administración Electrónica) podrá obtener una copia auténtica de este documento en formato digital, mediante el Código Seguro de Verificación que aparece en el margen izquierdo.



Getxo
UDALA • AYUNTAMIENTO



Fueros, 1
48992 GETXO (Bizkaia)
Tf: 94 466 00 00
Faxa: 94 466 00 85
<http://www.getxo.eus>



Finmado: LARRAITZ ABERASTURI IBARRA (OT LETRATUA / TAG LETRADA) Data: 2023/11/21 Fecha: 21/11/2023
MIREN KELTS EIGUREN ALBERDI Data: 2023/11/22 Fecha: 22/11/2023
AMALIA AGUIRRE MUNOZA (ALKATEA / ALCALDESA) Data: 2023/11/23 Fecha: 23/11/2023

ERANSKINA / ANEXO

Dekretua / Decreto:	5636 / 2023	Erref. / Ref.:	LA/mj
Gaia / Asunto:	Aprobación del Plan Estratégico de Subvenciones 2023-2027 del Ayuntamiento de Getxo		
Arloa / Área:	IDAZKARITZA / SECRETARIA		
Interesduna / Interesado:			

GETXOKO UDALEKO DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA

2023-2027 aldia

AURKIBIDEA

1.- Sarrera

- 1.1 Aurreko oharra
- 1.2 Izaera juridikoa
- 1.3 Eskumena
- 1.4. Diru-laguntzen Datu-base Nazionala. DDN

2.- Esparru subjektiboa

3.- Denbora esparrua

4.- Oinarri arautzaileen eta deialdien ildo nagusiak

- 4.1 Betebarra
- 4.2 Printzipio nagusiak
- 4.3 Plan estrategikoaren helburu nagusiak
- 4.4 Ildo estrategikoak
- 4.5 Emakida prozedura
- 4.6 Beteazpen epea
- 4.7 Finantzaketa

5.- Planaren jarraipena eta kontrola

6.- Urteko txostena

7.- Eskumen tituluak

8.- Gardentasuna

9.- Ildo estrategikoak

PLAN ESTRATEGICO DE SUBVENCIONES DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO

Periodo 2023-2027

ÍNDICE

1.- Introducción

- 1.1 Consideraciones previas
- 1.2 Naturaleza jurídica
- 1.3 Competencia
- 1.4 La Base de Datos Nacional de Subvenciones. BDNS

2.- Ámbito subjetivo

3.- Ámbito temporal

4.- Líneas básicas de las bases reguladoras y convocatorias

- 4.1 Misión
- 4.2 Principios generales
- 4.3 Objetivos Generales del Plan estratégico
- 4.4 Líneas estratégicas
- 4.5 Procedimiento de concesión
- 4.6 Plazo de ejecución
- 4.7 Financiación

5.- Control y Seguimiento del Plan

6.- Informe Anual

7.- Títulos competenciales

8.- Transparencia

9.- Líneas estratégicas

Eranskina. Ildo estrategikoak eta helburu zehatzak

1.- SARRERA

1.1.- Aurreko oharra

Diru-laguntzen arloan indarrean dagoen legediak, azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorra alegia, bultzada eta sustapen gisa ezagutu ohi den jardun publikoa legeak berak ezarritako parametroen barruan garatzea du helburu nagusi gisa, aurretik kontrolatzeko eta ondoren ebaluatzeko beharrezko mekanismoak ezarri, honako oinarritzko helburu hauetan oinarrituz:

- Interes publikoko eta interes orokorreko jarduna sustatzen laguntzea, gizarte zibil egituratuak egindakoa eta elkarte, entitate eta partikularren bitartez artikulatutakoa.

- Norbanakoen gizarteratzea eta sustapena laguntzea, gizarte zaingarritasuneko egoera zehatz batzuetan dauden herritarrei laguntza ekonomikoak emanez.

Horretarako, jarduera hori printzipio batzuen mende jartzeko betebeharra dakar legediak; printzipio horiek honako hauek dira:

- Publizitatea, gardentasuna, lehia, objektibotasuna, berdintasuna eta bazterketarik eza.
- Eraginkortasuna administrazio emaileak ezarritako helburuak betetzean.
- Administrazioaren diskrezionalitatea kontrolatzea.
- Efizientzia baliabide publikoak erabiltzerakoan eta ematerakoan.

Horrela, Estatuko legeriak administrazio publikoen jarduketan eraginkortasuna hobetzeko kudeaketa-elementu eta tresna gisa ezartzen du administrazio bakoitzean Dirulaguntzen Plan Estrategiko bat egin behar dela, lortu nahi diren helburuak eta ondorioak aplikazioarekin, horiek lortzeko behar den epea, aurreikus daitezkeen kostuak eta finantzaketa-iturriak erlazionatu ahal izateko, betiere

Anexo - Líneas estratégicas y objetivos específicos

1.- INTRODUCCIÓN

1.1.- Consideraciones previas

La legislación vigente en materia de subvenciones, la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones tiene como objetivo fundamental que la actividad pública tradicionalmente conocida como de fomento y promoción se desarrolle dentro de los parámetros que la propia ley impone, estableciendo los mecanismos adecuados para su control previo y evaluación posterior, sobre la base de los siguientes objetivos básicos:

- Favorecer el fomento de la actividad de interés público y general que realiza la sociedad civil estructurada y articulada en asociaciones y entidades, y también mediante particulares.

- Fomentar la promoción e inclusión social de los individuos mediante ayudas económicas a aquellos ciudadanos que se encuentren en determinadas situaciones de vulnerabilidad social.

Y para ello, la legislación obliga al sometimiento de esta actividad a los principios de:

- Publicidad, transparencia, concurrencia, objetividad, igualdad y no discriminación.
- Eficacia en el cumplimiento de los objetivos fijados por la Administración otorgante.
- Control de la discrecionalidad administrativa.
- Eficiencia en la asignación y utilización de los recursos públicos.

Así, la legislación estatal introduce como elemento de gestión e instrumento para la mejora de la eficacia en las actuaciones de las Administraciones Públicas la necesidad de elaborar, en cada administración, un Plan Estratégico de Subvenciones, que permita relacionar los objetivos y efectos que se pretenden con su aplicación, el plazo necesario para su consecución, los costes previsibles y sus

aurrekontu-egonkortasuneko helburuak betetzearen mende.

fuentes de financiación, supeditándose en todo caso al cumplimiento de los objetivos de estabilidad presupuestaria.

Aipatzen du dirulaguntza bakoitzaren oinarri arautzaileek dirulaguntzen plan estrategikoari egingo diote erreferentzia, eta helburuak lortzen nola laguntzen duten adieraziko dute; bestela, arrazoitu egin beharko da zergatik den beharrezkoa dirulaguntza berria ezartzea, baita Planean aurreikusi ez bada ere, eta nola eragiten dion hura betetzeari.

Añade que las bases reguladoras de cada subvención harán referencia al Plan estratégico de subvenciones en el que se integran, señalando de qué modo contribuyen al logro de sus objetivos; en otro caso, deberá motivarse por qué es necesario establecer la nueva subvención, incluso aun no habiendo sido prevista en el Plan, y la forma en que afecta a su cumplimiento.

Gaur egun, Getxoko Udalak Getxoko Udaleko eta haren erakunde autonomoetako dirulaguntzen Ordenantza orokorra dauka, 2022ko apirilaren 7tik indarrean dagoena. 2021eko abenduaren 23ko osoko bilkuraren erabakiaren bidez hasierako onarpena jaso du eta behin betiko onartu dena, emandako epean ez baita erreklamaziorik edo iradokizunik aurkeztu.

En la actualidad, el ayuntamiento cuenta con la Ordenanza general de subvenciones del Ayuntamiento de Getxo y sus organismos autónomos en vigor desde el 7 de abril de 2022, aprobada inicialmente mediante acuerdo plenario de 23 de diciembre de 2021 y aprobada definitivamente, al no haberse presentado ninguna reclamación o sugerencia en el plazo conferido.

Ordenantzaren 4. artikuluan xedatutakoaren arabera:

Tal como dispone la Ordenanza en su artículo 4:

"1.- Getxoko Udalak eta haren erakunde autonomoek, dirulaguntzak definitu aurretik, dirulaguntzen plan estrategiko batean zehaztu beharko dituzte horiek aplikatuz lortu nahi dituzten helburu eta efektuak, horiek lortzeko behar duten epea, aurreikusten dituzten kostuak eta beraien finantzaketa-iturriak. Betiere, aurrekontu egonkortasunerako helburuak bete beharko dituzte.

"1. El Ayuntamiento de Getxo y sus organismos autónomos, con carácter previo al establecimiento de subvenciones, deberán concretar en planes estratégicos de subvenciones los objetivos y efectos que se pretenden con su aplicación, el plazo necesario para su consecución, los costes previsibles y sus fuentes de financiación, supeditándose en todo caso al cumplimiento de los objetivos de estabilidad presupuestaria.

2.- Dirulaguntzen plan estrategikoak alkateak edo erakunde autonomoetako buruek onetsiko dituzte. Lau urteko indarraldia izango dute, arrazoitu ondoren, bestelako epea zehaztea komeni denean izan ezik.

2.- Los planes estratégicos de subvenciones serán aprobados por la Alcaldía o Presidencia de los organismos autónomos. Tendrán una vigencia de cuatro años, salvo que, motivadamente, sea conveniente establecer un plazo diferente.

3.- Plan estrategikoek izaera programatikoak daukate eta beraien edukiak ez du eskubiderik ez betebeharririk sortzen; beraien eraginkortasuna dirulaguntza ildoak praktikan jartzearen baldintzapean geratzen da. Besteak beste, ekitaldi bakoitzeko aurrekontuan erabilgarri dagoen diruaren baldintzapean egongo dira".

3.- Los planes estratégicos tienen carácter programático y su contenido no crea derechos ni obligaciones; su efectividad quedará condicionada a la puesta en práctica de las diferentes líneas de subvención, atendiendo entre otros condicionantes a las disponibilidades presupuestarias de cada ejercicio".

Getxoko Udaleko diru-laguntzak kudeatzeko ardura daukaten arlo eta zerbitzu guztiek plan estrategiko hau egiteko prozesuan parte hartu dute.

El presente Plan Estratégico ha sido elaborado con la participación de todas las Áreas y Unidades responsables de la gestión de subvenciones en el Ayuntamiento de Getxo.

1.2.- Izaera juridikoa.

1.2.- Naturaleza jurídica.

Diru-laguntzen plan estrategikoak izaera programatikoa daukaten kudeaketa tresna bat dira; ez dute arau izaerarik, banakakoen mailan ez dute zuzenean eragiten, eta plana onartzeak ez dio Administrazioari eskubide edo betebeharririk ekartzen.

Eraginkorra izan dadin diru-laguntzen ildo desberdinen edo diru-laguntza izendunen kasuan kasuko deialdiak onartu behar dira, baita ekitaldi bakoitzerako aurrekontu aukerak ere.

1.3.- Eskumena.

Diru-laguntzen Plan Estrategikoa onartzeko erakunde eskumenduna Alkateak da; Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.s) artikuluan xedatutakoaren arabera, erakundeen artean eskumenak esleitzeko oinarritzko araua.

1.4.- Diru-laguntzen Datu-base Nazionala. DDN.

Era berean, Administrazio Publiko guztiek etengabe eman behar dute Dirulaguntzen Datu-base Nazionalari emandako deialdiei eta dirulaguntzei buruzko informazioa, datu-base hori sortzeko gardentasun- eta publizitate-irizpide berriak behar bezala betetzeko.

Horren haritik, Kontu hartzailetzak dagoeneko badu alta DDNko erabiltzaile gisa erakundeko administrari bezala, eta diru-laguntzen arloko espedienteen gainerako udal teknikari kudeatzaileak bertako erabiltzaile baimendu gisa daude erregistratuta.

2.- ESPARRU SUBJEKTIBOA.

Getxoko Udaleko Diru-laguntzen Plan Estrategiko honek Getxoko Udalak arloen bitartez emandako diru-laguntzak.

3.- DENBORA ESPARRUA.

Diru-laguntzen Plan Estrategiko honen denbora esparruari dagokionez, onartzen denetik LAU URTEKO indarraldia izango du (2023ko ekitaldia onartzen denetik 2027. urtean dagokion data

Los Planes Estratégicos de Subvenciones son un instrumento de gestión de carácter programático, que carece de rango normativo, que no supone una incidencia directa en la esfera de los particulares, ni su aprobación genera derechos ni obligaciones para la Administración.

Su efectividad queda condicionada a la aprobación de las correspondientes convocatorias de las diferentes líneas de subvención o subvenciones nominativas, así como de las disponibilidades presupuestarias de cada ejercicio.

1.3.- Competencia.

El órgano competente para la aprobación del Plan Estratégico de Subvenciones es la Alcaldía, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 21.1.s) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las bases del Régimen Local, norma básica para la atribución de competencias entre las entidades locales.

1.4.- La Base de Datos Nacional de Subvenciones. BDNS.

Así mismo, la totalidad de las Administraciones Públicas deben de suministrar información de manera permanente sobre las convocatorias y las subvenciones concedidas a la Base de Datos Nacional de Subvenciones, en aras de cumplir debidamente con los nuevos criterios de transparencia y publicidad que guían la creación de dicha Base de Datos.

En este sentido constan realizadas las correspondientes altas de usuarios en la BDNS de la Intervención como administrador institucional y del resto del personal técnico municipal gestor de expedientes en materia de subvenciones como usuarios/as autorizados/as en la misma.

2.- ÁMBITO SUBJETIVO.

El presente Plan Estratégico de Subvenciones del Ayuntamiento de Getxo incluye las subvenciones concedidas por el Ayuntamiento de Getxo en sus diversas áreas.

3.- ÁMBITO TEMPORAL.

El ámbito temporal del presente Plan Estratégico de Subvenciones tendrá un periodo de vigencia de CUATRO AÑOS contados desde su aprobación (ejercicio 2023 desde su

arte). Hala ere, plana urtero, Alkateak eguneratu edo aldatu ahal izango du, jarraipen prozesuan jasotako informazio nabarmenarekin bat etorri eta, bereziki, seigarren atalean aurreikusitako urteko txostena ikusita.

Nolanahi ere, planak berak eta planaren eguneraketek isla izango dute indarrean dagoen ekitaldiko udal aurrekontuetan IV. kapituluaren jasotako gastuen aplikazio eta partidetan, bai zuzeneko diru-laguntzen kasuan, bai lehia araubide bidezko deialdiko diru-laguntzetan.

4.- DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO DEIALDIEN ETA OINARRI ARAUTZAILEEN OINARRIZKO ILDOAK.

Diru-laguntzak emateko oinarri arautzaileak eta deialdi, hitzarmen eta ebazpenen oinarriko ildo nagusiak, plan honetan ezarritako ildo estrategiko bakoitzeko helburu zehatzak alde batera utzita, honako hauek dira:

4.1.- Betebeharra.

Getxoko Udalaren diru-laguntza jardun osoaren betebeharra, izateko arrazoia, honako hau da:

"Gure udalerriko gizarte zibil egituratuaren parte hartzea sustatzea, bultzatzea eta indartzea, intereseko udal kudeaketako esparruetan, elkarrekin sareak garatutako interes orokorreko proiektuak eta lanak diruz lagunduz, eta norbanakoen gizarteratzea sustatuz gizarte zaurkortasuneko egoera zehatzetan dauden herritarrei laguntza ekonomikoak emanez, betiere aukera berdintasunaren printzipioaren defentsan".

4.2.- Printzipio nagusiak.

Estatu mailako oinarriko esparruko diru-laguntzen arautze juridikoak jarduteko zenbait printzipio nagusi finkatu zituen; Plan Estrategikoaren oinarriko elementuak dira eta diru-laguntzen arloan udal kudeaketa arautu behar dute.

aprobación hasta la fecha que corresponda de 2027). No obstante, anualmente, se procederá, en su caso, a la actualización o modificación por la Alcaldía del Plan de acuerdo con la información relevante disponible derivada del proceso de seguimiento del mismo y, en particular, a la vista del informe anual previsto en el apartado sexto.

En todo caso, tanto el plan como sus actualizaciones tendrán reflejo en las correspondientes partidas y aplicaciones de gasto del capítulo IV que figuren en los presupuestos municipales del ejercicio en vigor, tanto para las subvenciones directas como para las de convocatoria en concurrencia competitiva.

4.- LÍNEAS BÁSICAS DE LAS BASES REGULADORAS Y DE LAS CONVOCATORIAS PARA LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES.

Las líneas básicas generales de las bases reguladoras y convocatorias, convenios y resoluciones para la concesión de subvenciones, independientemente de los objetivos específicos de cada una de las líneas estratégicas formuladas en el plan, son los siguientes:

4.1.- Misión.

La misión, razón de ser del conjunto de la actividad subvencional del Ayuntamiento de Getxo, queda formulada así:

"Impulsar, promover y potenciar la participación de la sociedad civil estructurada de nuestro municipio en los distintos ámbitos de gestión municipal de interés concurrente, apoyando económicamente la labor y los proyectos de interés general desarrollados por el tejido asociativo, así como propiciar la inclusión social de los individuos mediante ayudas económicas a aquellos ciudadanos que se encuentren en determinadas situaciones de vulnerabilidad social, todo ello en defensa del principio de igualdad de oportunidades".

4.2.- Principios Generales.

La regulación jurídica en materia de subvenciones en el ámbito básico estatal establece unos principios generales de actuación, que son elementos fundamentales del Plan Estratégico y que deben regir la gestión municipal en materia de subvenciones.

a) Publizitatea eta lehia, funts publikoen banaketan lehia eta berdintasuna bermatuko dituen aldez aurreko deialdiaren bitartez; nolahi ere, baliteke zenbait laguntza zuzenean ematea; horretarako, arau aplikagarri bakoitzean ezarritakoarekin bat etorri, aurrekontua eskuragarri egon beharko da.

b) Objektibotasuna funts publikoan esleitzeko prozesuan, lehia kasuetan jarduerak eta proiektuak aukeratzeko irizpideak eta horiek zenbatzeko haztapen metodoak ezarri.

c) Berdintasuna eta bazterketarik eza herritarren, sektoreen eta komunitateen artean.

d) Gardentasuna baliabide publikoak banatzeko prozesuan, bai emakida prozesuan, bai emaitzak argitaratzeko prozesuan.

e) Eraginkortasuna helburuak betetzean, erakunde kudeatzaile, unitate eta zerbitzuek emandako diru-laguntzen jarraipen eta kontrola egiteko prozedura bat ezarri.

f) Efizientzia baliabide publikoak erabili eta banatzerakoan, diru-laguntzen balorazioan eta proiektu eraginkorrenei ematerakoan. Printzipio horiek guztiak aplikagarriak dira udalaren diru-laguntza programa eta ildoen multzoari dagokienez.

4.3.- Helburu nagusiak

Plan Estrategiko honen eta 2023-2027 ekitaldietarako udalaren diru-laguntza eta laguntza ildoen helburu nagusiak honako hauek dira:

1.- Udalerriko pertsona eta entitateen parte hartze soziala bultzatzea, hurengo esparruetan: gizarte zerbitzuak, gazteria, zahartze aktiboa, inmigrazioa eta kuturartekotasuna, nazioarteko lankidetzak, hezkuntza, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna, herritarren parte hartzea, euskera, etxebizitza eta ondare eraikiak, sustapen ekonomikoa, ingurumenaren hobekuntza eta sentsibilizazioa, eta dokumentu honetan eta eranskinean jasotako ekimen partekatuko gainerako sektore eta esparru guztietan.

a) Publicidad y concurrencia, mediante convocatoria previa en la que se garantiza la concurrencia e igualdad en la distribución de fondos públicos, ello sin perjuicio de la posible concesión directa que, de conformidad con lo establecido en cada una de las normas aplicables, deberá contar con las debidas disponibilidades presupuestarias previo.

b) Objetividad en el proceso de asignación de fondos públicos, fijando los criterios y su ponderación para la selección de los proyectos y actividades en el caso de concurrencia.

c) Igualdad y no discriminación, entre la ciudadanía, entre los distintos sectores y entre los colectivos.

d) Transparencia en el proceso de asignación de recursos públicos, tanto el proceso de concesión, como en la publicación de los resultados.

e) Eficacia en el cumplimiento de los objetivos, con el establecimiento de un procedimiento de seguimiento y control de las subvenciones concedidas por parte de los servicios, unidades y entidades gestoras.

f) Eficiencia en la asignación y utilización de los recursos públicos, con la valoración de las subvenciones y la asignación a los proyectos más eficientes. Todos esos principios son aplicables al conjunto de las líneas y programas de subvención del ayuntamiento.

4.3.- Objetivos Generales

Son objetivos generales del presente Plan Estratégico y de las diferentes líneas de ayudas y subvenciones del ayuntamiento para los ejercicios 2023-2027 los siguientes:

1.- Impulsar la participación social de las entidades y personas del municipio en cada uno de los siguientes ámbitos: los servicios sociales, juventud, envejecimiento activo, inmigración e interculturalidad, cooperación internacional, educación, igualdad entre mujeres y hombres, participación ciudadana, euskera, vivienda y patrimonio construido, fomento económico, la sensibilización y mejora medioambiental y el resto de los ámbitos y sectores de iniciativa compartida incluidos en el presente documento y en su anexo.

2.- Diru-laguntzen udal kudeaketa hobetzea eta arrazionalizatzea laguntza ildoen kudeaketan zeharkakotasun, eraginkortasun eta efizientzia esparruetako balorazioarekin.

2.- Mejorar y racionalizar la gestión municipal de las subvenciones con la valoración de los aspectos de transversalidad, eficacia y eficiencia en la gestión de las diferentes líneas de ayudas.

4.4.- 2023-2027 aldirako Jardun Ildo Estrategikoak.

4.4.- Líneas Estratégicas de Actuación para el periodo 2023-2027.

Plan Estrategiko honetako jardun ildo estrategikoak, udalaren diru-laguntzen ildo edo helburu zehatzak jasotzen dituztenak, honako hauek dira, eskumen arloen arabera:

Las líneas estratégicas de actuación recogidas en el presente Plan Estratégico en el que se integran las diversas líneas u objetivos específicos de subvenciones del ayuntamiento, distribuidas por áreas de competencia, son las siguientes:

ESKUMEN ARLOA	ILDO ESTRATEGIKOA (2023-2027)	HELBURUAK ZEHATZAK (2023-2027)
Gizarte-kohesioa	1. Pertsona eta familientzako gizarte-laguntzak	1. Gizarte-bazterketa prebenitzeko, ekiditeko edo arintzeko beharrezkoak diren gastu zehatzak ordaintzen laguntzea, arruntak edo apartekoak, baliabide nahiko ez duten udalerriko biztanleei. 2. Egoitza batean sartzeko baliabide egoki eta ezinbestekotzat baloratu dieten nagusiei laguntzea, baldin eta ez badute Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako beste egoitza-zerbitzu eta/edo prestaziorako sarbiderik. 3. Eguneko zentro baten kostua ordaintzen laguntzea, sartzeko betekizunak bete arren, plaza eskuragarri ez egoteagatik eguneko arreta-zentrora sartu ezin direnei. 4. Etxebizitza komunitarioko plaza baten kostua ordaintzen laguntzea, sartzeko betekizunak bete arren, plaza eskuragarri ez egoteagatik udal-etxebizitza komunitariora sartu ezin direnei. 5. Getxoko familientzako diruz laguntzea seme-alaben hezkuntza-gastu orokorretan. 6. Pertsonen parte-hartze aktiboa sustatzea.
	2. Irabazi asmorik gabeko gizarte ekintzako erakundeak	1. Getxo udalerrian jarduerak egiten dituzten irabazi-asmorik gabeko gizarte-erakundeen jardura nahiz proiektuen garapena sustatzea, aintzat hartuta Udaleko Gizarte Zerbitzuen eta Esku-hartze Komunitario Arloaren eskumenetan sartzen direnak: gazteria, zahartze aktiboa, immigrazioa eta kulturartekotasuna, garapenerako lankidetzak, adikzioen prebentzioa, dibertsitate funtzionala eta gizon eta emakumeen arteko berdintasuna. 2. Udalerrian elkarte-sarea mantentzea eta babestea, betiere boluntariora elkartasunaren

eta parte-hartzearen erdigunean jarrita.

3. Garapenerako lankidetzaren sustatzea, bai eta gizarte-eraldaketarako sentsibilizazioa eta nazioarteko lankidetzaren deszentralizatuaren alorrean erakunde-koordinazioa ere; hori guztia, aurrera egiteko herrialde txiroak garatzeko lankidetzaren programetara zuzendutako % 0,7ko aurrekontu-esleipena lortzeko bidean.

Gobernu Irekia 3. Euskera eta Modernizazioa

1. Euskararen ezagutza sustatzea.
2. Euskararen erabilera sustatzea.
3. Euskara eta euskal kultura bultzatzea helburu duten ekitaldiak sustatzea.

Kontratazioa, Ondarea eta Etxebizitza 4. Ondare historiko-artistikoa babestea eta artatzea

1. "PORTUZARRA" Algortako Portu Zaharreko bizilagunen elkartearekin lankidetzan aritzea, Algortako Portu Zaharreko monumentu-multzoa osatzen duten ondasunak kontserbatzeko babes-jarduketa egokiak garatzeko.

5. Etxebizitza

1. Etxebizitzen alogera sustatzea.
2. Eraikinen birgaitzea eta zaharberritzea laguntzea.
3. Hutsik dauden etxebizitzak merkaturatzea sustatzea.

Sustapen ekonomikoa 6. Enpleguaren sustapena

1. Enpresei laguntzeak ematea Getxon enplegua sor dezaten sustatzeko, langabeak kontratatuz, enplegua sustatzeko toki ekintzetarako Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren deialdiaren barruan.

7. Sustapen ekonomikoa

1. Udalerriko ekonomian eragina duten ekintzak eta proiektuak babestea.
2. Enpresa-proiektuen bideragarritasuna babestea eta lehiakortasuna hobetzea.
3. Mugikortasun jasangarri eta irisgarria bideratutako ekimenak sustatzea
4. Udalerriko establezimenduetan kontsumoa sustatzea.
5. Enpresen eta profesionalen elkartegintza bultzatzea.

Azpiegiturak, obrak eta zerbitzuak. Ingurumena 8. Ingurumena

1. Udalerriko ikastetxe publikoetan zein pribatuetan ingurumen-hezkuntzako proiektuak eta ekintzak sustatu, bultzatu eta eragitea.

ÁREA DE COMPETENCIA	LÍNEA ESTRATÉGICA (2023-2027)	OBJETIVOS ESPECÍFICOS (2023-2027)
Cohesión social	1. Ayudas Sociales a personas y familias	<ol style="list-style-type: none"> 1. Hacer frente a gastos específicos, de carácter ordinario o extraordinario, necesarios para prevenir, evitar o paliar situaciones de exclusión social de aquellas personas vecinas del municipio cuyos recursos resulten insuficientes. 2. Colaborar en la financiación del ingreso residencial de personas mayores a las que se les ha valorado como recurso idóneo e imprescindible el ingreso residencial y no tiene acceso a otro tipo de servicios residenciales y/o prestaciones del SVSS. 3. Colaborar en la financiación del costo de un centro de día a aquellas personas que, cumpliendo los requisitos de acceso, no pueden acceder al Centro de Atención Diurna por falta de plazas disponibles. 4. Colaborar en la financiación del costo de una plaza en Vivienda Comunitaria para aquellas personas que, cumpliendo los requisitos de acceso, no pueden acceder a la Vivienda Comunitaria municipal por falta de plazas disponibles. 5. Colaborar con familias de Getxo en los gastos generales de educación de sus hijas e hijos. 6. Promover la participación activa de las personas.
	2. Ayudas a entidades sociales colaboradoras sin ánimo de lucro	<ol style="list-style-type: none"> 1. Fomentar la actividad y desarrollo de proyectos de aquellas entidades sociales sin ánimo de lucro que realizan actividades en el municipio de Getxo, enmarcadas dentro las competencias de los Servicios sociales municipales y la intervención comunitaria en materias de juventud, envejecimiento activo, inmigración e interculturalidad, cooperación al desarrollo, prevención de adicciones, diversidad funcional e igualdad entre hombres y mujeres. 2. Mantener y apoyar el tejido asociativo con fines sociales en el municipio, con el voluntariado como capital de solidaridad y participación. 3. Fomentar la cooperación al desarrollo, sensibilización para la transformación social y la coordinación institucional en materia de cooperación internacional descentralizada avanzando hacia la consecución del 0,7%

como asignación presupuestaria dirigida a los programas de Cooperación al Desarrollo con los países empobrecidos.

Gobierno Abierto y Modernización **3. Euskera**

1. Fomentar el conocimiento del euskera.
2. Fomentar del uso del euskera.
3. Fomentar eventos que tengan por objeto el fomento del euskera y la cultura vasca.

Patrimonio Vivienda **y** **4. Protección y Conservación Patrimonio Artístico** **y** **Histórico**

1. Colaborar con la Asociación de vecinos del Puerto Viejo de Algorta "PORTUZARRA" en el desarrollo de actuaciones de protección adecuadas para la conservación de los bienes que integran el Conjunto Monumental del Puerto Viejo de Algorta.

5. Vivienda

1. Fomentar el alquiler de viviendas.
2. Fomentar la rehabilitación y reforma de edificios.
3. Favorecer la puesta en el mercado de viviendas vacías.

Promoción económica **6. Promoción empleo**

1. Promover la generación de empleo en Getxo para la contratación laboral de personas desempleadas enmarcadas en la convocatoria de Lanbide –servicio vasco de empleo de ayudas para acciones locales de promoción de empleo.

7. Promoción económica

1. Apoyar acciones y proyectos que tengan impacto en la economía del municipio.
2. Apoyar a la viabilidad de proyectos empresariales y mejora de la competitividad.
3. Promover iniciativas orientadas a la movilidad sostenible y accesible.
4. Promover el consumo en los establecimientos del municipio.
5. Apoyar al asociacionismo empresarial y profesional.

Infraestructuras, Obras y Servicios. Medio Ambiente **8. Medio Ambiente**

1. Promocionar, impulsar y fomentar proyectos y acciones de educación ambiental en los centros escolares del municipio, tanto públicos como privados.

Ez dira sartzen azaroaren 17ko 38/2003 Legearen aplikazio-eremuan sartzen ez diren elkarteen alde udalak ohiko nahiz ezohiko kuotengatik egiten dituen diru-ekarpenak, ezta udal talde politikoen aldeko diru-laguntzak.

No se incluyen las aportaciones dinerarias que en concepto de cuotas, tanto ordinarias como extraordinarias, realice el ayuntamiento a favor de las asociaciones, ni las subvenciones a los grupos políticos municipales, ya que no están comprendidas en el ámbito de aplicación de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre.

Ildo bakoitzerako aurreikusitako zenbatekoak ekitaldi bakoitzerako udalaren Aurrekontu Orokorrean jasotakoak izango dira.

Jardun ildo bakoitza garatzeko kasuan kasuko urteko aurrekontuan esleipen zehatza jaso beharko da, eta horixe izango da kasu bakoitzerako muga.

4.5.- Emakida prozedura.

Getxoko Udalak Diru-laguntzen Lege Orokorrean jasotako printzipio eta prozedurak aplikatu beharko dituzte diru-laguntzen eta laguntzen esparruan; diru-laguntza mota hauek ezarri dira:

- Lehia bidezko konkurrentzia erregimenean emandako diru-laguntzak.
- Aurrekontuan aurreikusitako diru-laguntza izendunak.
- Zuzenean emandako diru-laguntzak, interes publikoko arrazoiak, arrazoi sozialak, ekonomikoak edo humanitarioak direla medio edo behar bezala justifikatutako beste arrazoi batzuk direla medio, deialdi publikoa egitea oztopatzen badute.
- Lege mailako agindu baten ondorioz eman beharreko edo zenbateko jakin bateko diru-laguntzak.

Oro har, diru-laguntzak lehia konkurrentziako erregimenean emango dira. Era berean, zuzenean eman ahal izango dira udal-aurrekontuetan nominatibo gisa agertzen diren dirulaguntzak, Administrazioari lege-mailako arau baten bidez eman edo ordaindu beharrekoak, eta salbuespen gisa, interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioko arrazoiak edo deialdi publikoa oztopatzen duten behar bezala justifikatutako beste dirulaguntza batzuk.

Deialdietan, araututako diru-laguntza ildo bakoitzerako prozedura egokia zein den zehaztu beharko da.

4.6.- Betetze epeak.

Las cuantías previstas para cada una de las líneas serán las recogidas en el Presupuesto General del Ayuntamiento de cada ejercicio.

La ejecución de las líneas de actuación quedará por tanto condicionada y limitada a la concreta consignación de las mismas en el correspondiente presupuesto anual.

4.5.- Procedimiento de concesión.

El Ayuntamiento de Getxo deberá aplicar en materia de subvenciones y ayudas los principios y procedimientos recogidos en la Ley General de Subvenciones, estableciendo como tipos de subvención:

- Subvenciones concedidas en régimen de concurrencia competitiva.
- Subvenciones nominativas previstas en el presupuesto.
- Subvenciones concedidas de forma directa por razones de interés público, social, económico o humanitario u otras debidamente justificadas que dificulten su convocatoria pública.
- Subvenciones cuyo otorgamiento o cuantía sean impuestas por una norma de rango legal.

Con carácter general, las subvenciones se concederán en régimen de concurrencia competitiva. Asimismo, podrán concederse de forma directa aquellas subvenciones que figuren como nominativas en los presupuestos municipales, aquellas cuyo otorgamiento o cuantía venga impuesto a la Administración por una norma de rango legal, y con carácter excepcional, aquellas otras subvenciones en que se acrediten razones de interés público, social, económico o humanitario, u otras debidamente justificadas que dificulten su convocatoria pública.

En las correspondientes convocatorias deberá recogerse el procedimiento adecuado a cada una de las líneas de subvención que se regulen.

4.6.- Plazos de ejecución.

Oro har, udal diru-laguntzek urtebeteko betetze epea izango dute, eta betetze ondorioetarako urte naturaleko epea aukeratu ahalko da.

Inguruabarrak direla medio komenigarria baldin bada betetze epea diru-laguntza eman den ekitaldiaren hurrengora arte luzatzea edo betetze epe nagusia aldatzea, orduan inguruabar horiek berariaz jaso beharko dira kasuan kasuko diru-laguntzen ebazpen, hitzarmen edo deialdietan, betiere posiblea baldin bada aurrekontu araudiari eta indarrean dagoen gainerako araudi aplikagarriari dagokienez.

Udal aurrekontuetan onartuz gero, urte anitzeko diru-laguntzak ematea aurreikusi da.

4.7.- Finantzaketa.

Plan honetako laguntza ildo eta diru-laguntzen eraginkortasuna lortzeko kasuan kasuko urteko aurrekontuan nahikoa kreditu egon behar da.

Edozein motatako diru-laguntza eman aurretik kasuan kasuko gastu baimena izapidetu beharko da, salbu eta alde aurreko izapidetze prozedura bitarteko diru-laguntzak izapidetzen badira; kasu horretan eskatu eta ondoren kredituko espediente ziurtatuari atxikiko zaio, eta deialdia gauzatze unean kreditu eskuragarritasun errealearen baldintzapean egongo da.

Oro har, diruz lagun daitekeen gastua diruz lagundutako ekintza edo proiektuaren gastu osoaren ehuneko jakin bat izango da, ildo estrategiko guztietarako; finantzaketaren gehieneko ehuneko hori ildo bakoitzerako ezarriko da kasuan kasuko deialdian edo ebazpen edo hitzarmenaren testuan.

Salbuespen gisa, diruz lagundu ahalko den kopuruaren gehieneko muga diruz lagundutako ekintza edo proiektuaren gastu osoa izatea finkatu ahalko da (%100); horrelakoetan, deialdian edo ebazpen edo hitzarmen testuan jaso beharko da, eta kudeaketa zerbitzuaren txosten justifikagarria aurkeztu beharko da.

5.- DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOAREN KONTROLA ETA JARRAIPENA.

Con carácter general, las subvenciones municipales tendrán un plazo de ejecución anual, siendo el periodo elegible a efectos de ejecución el año natural.

En aquellos supuestos en los que las circunstancias hagan conveniente la fijación de un plazo de ejecución que se extienda a otro ejercicio diferente al de la concesión, o la modificación del plazo general de ejecución, se deberán recoger estas condiciones expresamente en las correspondientes convocatorias, convenio o resolución de subvenciones, siempre y cuando ello sea posible conforme a la normativa presupuestaria y demás, en vigor, que resulte de aplicación.

Se prevé la posibilidad de subvenciones de carácter plurianual si así se aprueba en los presupuestos municipales.

4.7.- Financiación.

La efectividad de las líneas de ayudas y subvenciones incluidas en el presente plan quedará condicionada a la existencia de crédito adecuado y suficiente en el correspondiente presupuesto anual.

Previo a la concesión de cualquier tipo de subvención se procederá a la tramitación de la autorización del gasto correspondiente, excepto que se tramiten las convocatorias por el procedimiento de tramitación anticipada, en que se solicitará y acompañará al expediente certificado de crédito posterior, quedando condicionada la convocatoria a la disponibilidad real de crédito en el momento de su ejecución.

Con carácter general, el gasto subvencionable será un determinado porcentaje del gasto total del proyecto o actividad subvencionada para todas las líneas estratégicas, dicho porcentaje máximo de financiación se fijará para cada una de las líneas en su correspondiente convocatoria, o en el texto del convenio o resolución.

Excepcionalmente, podrá establecerse que el gasto subvencionable pueda alcanzar el máximo del gasto total del proyecto o actividad subvencionada (100%), lo que se hará constar en la convocatoria o el texto del convenio o resolución, debiéndose aportar informe justificativo del servicio gestor.

5.- CONTROL Y SEGUIMIENTO DEL PLAN ESTRATEGICO DE SUBVENCIONES.

Getxoko Udaleko Diru-laguntzen Plan Estrategiko honen jarraipen eta kontrol lanak urtero egingo dira, bi alderditan:

- Emandako diru-laguntzen kontrol ekonomiko eta finantzarioa eta legezotasuna; udaleko Kontu-hartzaitza Nagusiaren arduren artean egongo da, eta indarrean dagoen legedian eta, hala badagokio, horretarako garatutako araudian bertan jasotako baldintzen arabera egingo dira kontrol horiek.
- Planaren kontrol eta jarraipena; diru-laguntzen unitate kudeatzaile bakoitzak egin beharreko justifikazio memorian oinarrituz egingo da, kasuan kasuko ekitaldiaren hurrengo ekitaldiko lehen lauhilekoan.

Justifikazio memoria horrek honako zehaztasun hauek jaso beharko ditu:

- Diru-laguntza mota eta ildo bakoitzari buruzko informazioa, emandako, justifikatutako, baztertutako eta itzultako diru-laguntzak (edo itzultzeko prozeduran daudenak) jasoko dituena.
- Helburu zehatzen betetze maila, kasuan kasuko adierazle eta betetze epeen arabera.
- Benetako kostuak ekintza planean aurreikusitakoari dagokionez.
- Eragina izan nahi zuen errealitatean izandako eragina eta ondorioak.
- Plana aplikatzearen ondorioak aurrekontuetan eta finantzetan.
- Ondorio edo balorazio globala.
- Hurrengo Diru-laguntzen Plan Estrategikoa prestatzeko iradokizunak.

6.- URTEKO TXOSTENA.

El control y seguimiento del presente Plan Estratégico de Subvenciones del Ayuntamiento de Getxo se realizará de forma anual, en dos aspectos:

- Control económico-financiero y de legalidad de las subvenciones concedidas, que está encomendado a la Intervención General del ayuntamiento que se realizará en las condiciones recogidas en la legislación vigente y, en su caso, en la normativa propia desarrollado al efecto por la misma.
- Control y seguimiento del plan, que será realizado en base a la memoria justificativa a elaborar por cada unidad gestora de subvenciones durante el primer cuatrimestre del ejercicio siguiente al que se refiera.

Dicha memoria justificativa contendrá las siguientes especificaciones:

- Información de cada línea y tipo de subvención, que recogerá las subvenciones concedidas, las justificadas, las renunciadas y las reintegradas (o en procedimiento de reintegro).
- El grado de cumplimiento de los objetivos específicos mediante sus correspondientes indicadores, y de su plazo de consecución.
- Los costes efectivos en relación a los previsibles de su plan de acción.
- Impacto y efectos sobre la realidad en la que se ha pretendido incidir.
- Repercusiones presupuestarias y financieras que se derivan de la aplicación del plan.
- Conclusiones o valoración global.
- Sugerencias para la elaboración del siguiente Plan Estratégico de Subvenciones.

6.- INFORME ANUAL.

Urtero txosten bat aurkeztuko da Alkatetzari, aurreko atalean adierazitako dokumentazioan oinarrituz egindakoa, ildoetarako; txosten horretan egindako ekintzak, emandako diru-laguntzen laburpena eta horien balorazio globala jaso beharko da.

7.- ESKUMEN TITULUAK.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legean ezarritakoa kontuan hartu beharko da, baita Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legean, eta garapen araudian ere.

Ildo estrategiko bakoitzaren eskumen tituluak ulertzerakoan, nolatan ere, Toki-administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legearen araudi garapenak horri dagokienez egingo duen gaikuntza baldintza gisa hartu behar da, baita Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Lege autonomikoak eta garapen araudiak ere.

8.- GARDENTASUNA.

Udalak emandako diru-laguntza oro, ildo estrategiko, laguntza programa eta deialdi bakoitzean, urtero argitaratuko da bai DDN-n, bai udal webgunean; erakunde hartzailea, laguntzaren zenbatekoa eta jasoko duen ekintza edo proiektua ere adierazi beharko dira.

Emandako diru-laguntzak ez dira argitaratuko onuradunaren datuak argitaratzea, diru-laguntzaren xedeari lotuta, pertsona fisikoen norberaren edo familiaren intimitatearen edo ohorea zaindu eta errespetatzearen aurkakoa baldin bada, Ohorerako, Norberaren eta Familiaren Intimitaterako, eta Norberaren Irudirako Eskubidearen Babes Zibilar buruzko maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoan ezarritakoa dela bide, eta araudi arautzailean aurreikusitakoa bada.

9.- JARDUN ILDO ESTRATEGIKOAK.

ERANSKINA.

Anualmente se presentará ante la Alcaldía un informe elaborado en base a la documentación a que se refiere el apartado anterior, en relación a las diferentes líneas, en el que se muestren las acciones ejecutadas, el resumen de las subvenciones otorgadas, y la valoración global de las mismas.

7.- TÍTULOS COMPETENCIALES.

Habrará de tenerse en cuenta lo establecido en la Ley 7/1985 Reguladora de las bases del Régimen Local, así como en la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, y su normativa de desarrollo.

Los títulos competenciales de cada una de las líneas estratégicas deben entenderse condicionados, en todo caso, por la habilitación que de las mismas establezca finalmente el desarrollo reglamentario de la Ley 27/2013, de 27 de diciembre, de Racionalización y Sostenibilidad de la Administración Local, así como por la Ley autonómica 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, y su normativa de desarrollo.

8.- TRANSPARENCIA.

Todas las subvenciones concedidas por el ayuntamiento, en cada una de sus líneas estratégicas, programas de ayuda y convocatorias serán publicadas anualmente, aparte de en la BDNS, en la WEB municipal, indicando la entidad receptora, cuantía de la misma y proyecto o acción a la que va destinada.

No serán publicadas las subvenciones concedidas cuando la publicación de los datos del beneficiario en razón del objeto de la subvención pueda ser contraria al respeto y salvaguarda del honor, a la intimidad personal o familiar de las personas físicas en virtud de lo establecido en la Ley Orgánica 1/1982, de 5 de mayo, de protección civil del derecho al honor, a la intimidad personal y familiar y a la propia imagen, y haya sido previsto en su normativa reguladora.

9.- LÍNEAS ESTRATEGICAS DE ACTUACIÓN.

ANEXO.

Planaren eranskin gisa ILDO ESTRATEGIKOAREN FITXAK jaso dira (bana 8 ildo estrategiko bakoitzeko), eta bertan ildo estrategikoaren helburu estrategikoa eta udal diru-laguntzen helburu zehatzak ageri dira, Diru laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren Erregelamendua onartu zuen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuko 12.1 a), b) eta c) artikuluek eskatutako edukiarekin.

Como Anexo al presente plan se recogen en las FICHAS de LINEA ESTRATEGICA, (una por cada una de las 8 líneas estratégicas del mismo) en las que constan el objetivo estratégico de la línea estratégica y los objetivos específicos de subvenciones municipales, con el contenido que determina el artículo 12.1 a), b) y c) del Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

ANEXO

ILDO ESTRATEGIKO bakoitzaren FICHAS detalle de cada LINEA xehetasun FITXAK. ESTRATEGICA.

Eranskina. DIRULAGUNTZEN 2023-2027ko PLAN ESTRATEGIKOAREN fitxa
ESKUMEN-ARLOA: GIZARTE-KOHESIOA
1. ILDO ESTRATEGIKOA: PERTSONA ETA FAMILIENTZAKO GIZARTE-LAGUNTZAK
Helburu estrategikoa: Mendekotasunaren ondorioz pertsonen eta familiei eragiten dizkieten beharrezko erantzutea, bai eta parte-hartze sozialari, babesgabeziari, gizarte-bazterketari eta Getxoko pertsona eta/edo familiei sortzen ari zaizkien gizarte-egoerei lotutako beharrezko erantzutea.
Helburu zehatzak: 1.- Gizarte-bazterketa prebenitzeko, ekiditeko edo arintzeko beharrezkoak diren gastu zehatzak ordaintzen laguntzea, arruntak edo apartekoak, baliabide nahiko ez duten udalerriko biztanleei. 2.- Egoitza batean sartzeko baliabide egoki eta ezinbestekotzat baloratu dieten nagusientzako laguntzak, baldin eta ez badute Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako beste egoitza-zerbitzu eta/edo prestaziorako sarbiderik. 3.- Eguneko zentro baten kostua ordaintzeko laguntzak ematea, sartzeko betekizunak bete arren, plaza eskuragarri ez egoteagatik eguneko arreta-zentrora sartu ezin direnei. 4.- Etxebizitza komunitarioko plaza baten kostua ordaintzeko laguntzak ematea, sartzeko betekizunak bete arren, plaza eskuragarri ez egoteagatik udal-etxebizitza komunitariora sartu ezin direnei. 5.- Getxoko familientzako dirulaguntzak seme-alaben hezkuntza-gastu orokorretarako. 6.- Pertsonen parte-hartze aktiboa sustatzeko dirulaguntzak.
Helburu zehatz bakoitzean lortu nahi diren efektuak: 1.- Pertsonen eta/edo familien gizarte-bazterketa saihestea edo arintzea. 2.- 3.- eta 4.- Babesgabezia- eta/edo mendekotasun-egoeran dauden pertsonen arreta ematea, zorroko zerbitzuak edo baliokideak eskuratzea ahalbidetze aldera, betiere eskubide subjektiboa baliatzea bermatuz. 5.- Eskolatutako seme-alaben hezkuntzaren ondorioz familiek dituzten gastu orokorretan laguntzea.

Cod. Validacion: GET/DEK/2023/5636 gARCPwDs3J

<p>6.- Gizarte-koehisioko pertsonen ekimenak sustatzea eta babestea, ekintza kolektiboa bultzatuz eta/edo garapen pertsonala eta gizarte-gaikuntza sustatuz.</p>
<p>Helburu zehatz bakoitza lortzeko epea:</p> <p>Dagokien deialdietan edo ebazpenetan ezarritako epean lortu beharko dira helburuak.</p>
